

Argitaletxe gazte baten lehen urratsak

Ez da meritu txikia geroz eta irakurle gutxiago omen dagoen honetan argitaletxe bat abian jartzea. Duela urte eta erdi sortu zen Meettok-en kasua da. Lau liburu kaleratu ditu Donostiako Egia auzoan egoitza duen argitaldaria, bi euskaraz eta bi gaztelaniaz, denak itzulpenak. Jean Echenoz-en *Ravel* da ibilbide labur horren azken fruitua.

GORKA BEREZIARTUA

Argazkiak: Dani Blanco

“**BETI GUSTATU** izan zait kulturaren mundua, liburuak eta musika izan dira beti nire *hobby*ak. Formazioz zientzietakoa naiz eta enpresa mundura lotuta egon naiz, baina hau egin nahi nuen bizitzako momenturen batean” azaldu du Ramon Etxebeste Meettok argitaletxearen jatorriaz galdetuta. Bera da portutik abiatu berri den itsasontzi honetako patroia eta marinel. Bere buruari jarritako erronka izan zen argitaletxea sortzea. 2006ko martxoan eman zuen urratsa, Groucho Marx-en *Groucho eta ni* euskaraz argitaratu zuenean. Harkaitz Canoren hitzaurre eta guzti ikusi zuen argia liburu horrek. “70eko hamarkadan irakurri nuen lehen aldiz liburu eta berriro hartu nuen argitaletxearen ideia buruan izan nuenean. Iruditu zitzaidan testua oso gaurkoa zela, orain dela 50 urte idatzitakoa izan arren. Hala ere, hemengo idazle batek gaurkotasuna ematea ondo etorriko zela pentsatu nuen”.

Aurreneko urratsa emanda ondorengoak errazago etorri ziren Meettokentzat: “Biga-



Ramon Etxebeste Meettok argitaletxearen arduraduna, Donostiako Egia auzoko bulegoan.

ren liburu gaztelaniaz eta eslovenieraz kaleratu zen, France Preseren-en poemak dira, Esloveniako poeta nazionalarenak. Hirugarrena Kari Hotakainen-en *Camino de trincheras* izan zen, nobela finlandiarra, gaztelaniaz hau ere”. Euskaraz eta gaztelaniaz %50ean argitaratzeko asmoa du Meettokek, nahiz eta Etxe-

Ravel protagonista duen nobelaren euskarazko itzulpena beste hizkuntzetakoekin batera

Jean Echenozen *Ravel* izan da Meettokek kaleratu duen azken nobela. Musikagile ziburutarra zendu zenetik 70 urte beteko dira aurtan eta asko dira bere omenez antolatzen ari diren ekitaldiak. Idazle frantziarrak ere omenalditxoa egin dio, bere bizitzaren azken hamar urteak nobelaratuz. Joan den urtean argitaratu zen liburuaren jatorrizko bertsioa eta Gerardo Markuleta euskaratu du.

Etxebestek liburua argitaratzeko ideia nola sortu zen azaldu du: "Frantzia ezagutu nuen liburua. Echenozen atzetik banenbilen lehenago ere, idazle interesgarria iruditzen zait. Goncourt saria irabazi zuen, besteak beste. Eta gero Maurice Ravel, kultur arloko euskaldun unibertsal apurretakoa dugu eta bere musika beti interesatu izan zait. Irakurtzen hasi eta 'hau interesgarria izan daiteke' esan nion nire buruari".

Liburua gaztelaniaz Espainiako argitaletxe handi baten eskutik argitaratu den sasoi berean ikusi du argia euskarazko itzulpenak. "Printzipio kontua da, euskaraz beste hizkuntzetako itzulpenekin atera behar da, beste edozein hizkuntza bezalakoa delako" dio Etxebestek. Gainera euskarazkoa beranduago kaleratuz gero saltzeko aukera gutxiago izaten dela ere nabarmendu du Meettokeko arduradunak.

Joakin Atxukarro piano jole bilbotarrarekin egindako elkarrizketa bat dauka liburuak hitzaurre modura. "Euskal Herriko piano jole handiena da, munduko onenen artean dago eta Ravel sustraiaietatik ezagutzen du" dio Etxebestek. Elkar ezagutzen ez zuten arren nobela kaleratzeko zeukan ideia azaldu eta "Ravelengatik nahi duzuna" esan zuen Atxukarrok. Musikari modura ziburutarrek egindako lana azaldu du liburuako elkarrizketan.

bestek dioenez merkatuak eskaintzen dituen aukerak azertu beharko diren. "Euskaratik bakarrik ezin zara bizi, merkatu txikia da eta hor sendotuta daude argitaletxe asko. Urte asko dararamaten editoreak daude, indar asko dutenak".

Lehenago inoiz euskaratu gabeko egileak dira Groucho Marx eta Jean Echenoz. France Preseren eta Kari Hotakainen ere ez ziren lehenago gaztelaniara itzuli

azaldu du: "Azkenean ahalegin handiak eginda eta tematuta lortu egiten dituzu argitalpen eskubiak. Noski, hasieran zu ez zara inor eta jendea ez da asko fidatzen ezagutzen ez zaituenean. Beheko mailatik hasi naiz eta pixkanaka ari naiz goraka". Groucho Marxen liburuaren kasuan ahalegin horiek egiteaz gain geografia apur bat ere erakutsi behar izan zuen Meettok etxeko arduradunak: "Argitaletxe estatubatuarrek, hemendik deitzen diezunean, sarritan ez dute jakiten non dagoen ere, baina tira..."

Dena dela, Etxebesteren esanetan enpresa handia ez izateak baditu bere abantailak ere: "Zaluagoak gara, hori da gure abantaila, zaluagoak eta bizkorragoak izatea". Autonomiaz jarduteko aukera ere azpimarratu du Donostiako argitaldariko ordezkariak.

Zirrikituak zabaldu nahian

Orain arte kaleratu dituzten liburuen katalogoa ikusita badirudi Meettokek merkatuaren zirrikituetan arakatzeko asmoa duela, bere lekua aurkitzen saiatzeko. "Daukagun aukera bakarra da, besteek egiten ez dutena argitaratzea, gauza arraro samarrak". Lehenago inork euskaratu ez dituen egileak dira Groucho Marx eta Jean Echenoz, adibidez. Gaztelaniazko liburuekin ere antzera gertatzen da: France Preseren eta Kari Hotakainen ez ziren lehenago gaztelaniara itzuliak izan. "Pixka bat arriskatu beharra dago", Etxebesteren esanetan. ■

Argitaletxe txikia izatearen ajeak

Orain arte atzerriko idazleen itzulpenak kaleratu dituen argitaletxea izanda, galdera konturatu gabe ateratzen da: nolakoa da horiek argitaratzeko eskubideak lortzeko prozesua? Etxebestek lan eskerge egin behar izan duela

